

De todos modos, a pesar de esta proliferación de nuevos grupos no tengo claro que la música sea de más calidad. Obviamente no me refiero a proyectos asentados como Berri Txarrak u otros que han surgido con fuerza e ideas potentes como Belako, que son estándares claros. En general me cuesta encontrar creatividad, buenas canciones y conceptos nuevos, no solo aquí sino a nivel global. A ver, seamos realistas: todos copiamos, menos los genios que directamente roban. Pero hoy más que nunca la música parece de usar y tirar, nada permanece.

Ha nombrado a Berri Txarrak, que hace poco han sido un tema de conversación recurrente por la presunta polémica que ha suscitado su participación en el macroconcierto organizado por MTV en San Mamés...

¡Siguiente pregunta! (risas). Creo que los Berri tienen derecho a hacer lo que les plazca sin que nadie les cuestione. Tal vez yo hubiera hecho algo diferente en su lugar, o quizás me tocaría estar justificándome ahora... ¡Quién sabe! Por otro lado, los promotores del concierto han tenido la sensibilidad de invitar a un grupo vasco que canta en euskara, eso me parece un gesto importante.

La temática de las letras sigue muy apegada a lo que ocurre en la calle, pero esta vez se aprecia un matiz más idealista que combativo. ¿Lo ve así?

Sí, puede ser. Siempre he priorizado el contenido social, y desde luego trato de contar cosas desde un prisma optimista, si hay un hilo conductor en las letras del disco que unifique un poco el tono general es esa actitud positiva. ¡No sé si eso me convierte en un idealista, pero es lo que hay! (risas)

En realidad hay un poco de todo: Onintza Enbeita colabora en tres composiciones, entre las que destaca "Gure Esku Dago", uno de los momentos importantes del disco, y que obviamente trata sobre el derecho de las mujeres a decidir. En "Esperantzaz jantzita" se evoca la tragedia que sufren cada día los inmigrantes en el Mediterráneo, en "La Revolta des Somnriures" aparece el problema de Catalunya narrado por una catalana... También hay algunos momentos de respiro, como "You'll always be my love", una canción de amor en inglés sin pretensiones, o "Cantaré", una celebración de la vida. Creo que es un disco muy variado en su temática.

Y lleno de estribillos pegadizos y radiofónicos.
¡Confiamos en eso (risas)!

Ez da makala azken urtean Altzoko Handiaren bizipenek izan duten oihartzuna. David Azurzak opera egin zuen lehenik, gero Altzon hari eskainitako ibilbidea eratu zuten,

zinema pantailara egin zuen jauzi ostean... eta orain, Koldo Izagirre eta Irrimarrako Karmele Gorroño eta Irene Iruretak umeen uni-

bertsorako egokitu dute.

Haurren unibertsoan murgildu da Altzoko Handiaren itzala

Amalur ARTOLA | DONOSTIA

Aurten berrehun urte dira Miguel Joakin Eleizegi jaio zenetik. Altzoko Handia ezizenez ezagunagoa, akromegalia zuen gizonetza 2,14 metroko garaiera izatera iritsi eta, kontatu izan zaigunez, horrek zorigaitzak bezainbeste zorian ekarri zuen bere bizitzara.

Istorio zirraragarriaren sorkatit tiraka, azken urteotan asko izan dira Altzoko Handiaren bizitza gogorazi eta pertsonaiaz harago zegoen pertsona irudikatze egin diren ahaleginak. Ezagunena, agian, Moriarti ekoiztetxeko Jon Garaño eta Aitor Arregiren "Handia" film saritua izango da, baina aurretik David Azurzak opera bat eskaini zion eta Altzoko Udalak herrian Eleizegiren omenezko ibilbidea eratu zuen, esate baterako.

Bi egitasmo horiek gertutik ezagutzen ditu Koldo Izagirrek. Operaren kasuan, bera izan zen Azurzaren eskariz libretoa osatu zuena -Mexikon arrakasta handia izan duela eta aurki AEBan estreinatuko dela iragarri zuen- eta Altzoko zirkuirako panelak diseina-

tzen ere hartu zuen parte, Udalaren eskariz orduan ere. «Lan handia egin genuen, Juanba Berasategirekin, eta ezezagunak ziren datuak eta marrazkiak agertu ziren», ekarri zuen gogora Izagirrek. Orduan eman omen zioten Altzoko Handiaren istorioa literaturara eramateko ideia, eta zeregin hori Erein argitaletxearen eta Irrimarrako ilustratzaileen bidez eraman du aurrera.

Hala sortu da Altzoko Handia protagonistatzat duen bilduma, oraingoz bi ale eman dituen: «Altzoko Handia eta Kutixiren gezurrak» eta «Altzoko Handia eta Kutixiren pianoa». Jatorriz euskaraz idatziak, gaztelarazko bertsioak ere argitaratu dituzte ("El Gigante de Alzto y las mentiras de Kutixi" eta "El Gigante de Alzto y el piano de Kutixi").

Kontrapuntua

Kontakizuna datu historikoe-tan oinarrituta baino, Altzoko Handiaren irudia gaur egunera ekarri eta kontrapuntu gisa Kutixi izeneko pertsonaia -neskato txiki eta bihurria- irudikatu du Izagirrek, eta hasieran na-

rrazio klasiko bat osatu bazuen ere Irrimarrako Irene Iruretak eta Karmele Gorroñok helarazitako lehen zirriborroen maila ikusi zuenean bestelako bidea jorratu behar zuela ikusi zuen argi: «Erabaki nuen testuak ez zuela narratiboa izan behar; kopia motzak, solasak eta onomatopeiak soilik daude eta horrek sekulako lana eman zidan», aitortu zuen.

Albuma «erakargarria, koloretsua eta ederra» dela baieztatu eta, ilustrazio zein tes-

tuen bidez, bi irakurketa posible egin daitezkeela berretsi zuen. Bata, haurrek euren irudimena erabiltzea egingo dutena eta, bestea, helduek testuen bidez interpretatuko dutena: «Haiek istorio bat muntatuko dute ikusten dutenaren arabera, guk ez dugu halako abilidadirik, eskolak formateatu egin gaitu, atrofiatu egin gaituzte, eta bigarren mailara pasa dira jolastea, disfrutatzea, fantaseatzea. Hori da helduok album honekin dugun zailtasuna, lan bat eskatzeko digu, haurrekin batera irakurri behar dugu, haiek dira adituak irudi hauek interpretatzeko». Aldi berean, zenbait pasartetan ironia erabili du Izagirrek testuetan, eta helduek haurrei lagundu beharko diete eszena testuaren arabera interpretatzen. «Gezurra badiudi ere, irudiaren ederrak irakurleen inplikazioa eskatzen du, irudien bidez iritsiko da narrazio testua bera», nabarmendu zuen.

Ilustrazioei dagokienez, gamma kromatikoa eta irudien soiltasun eta edertasunak erakartzen du arreta, eta Irrimarrako kideek, Altzoko Handiaren argazkirik ez dagoenez -marrazkiak soilik daude-, estilo propioa garatu eta interpretazio librean aritu direla azaldu zuten. «Errespetua genien aurrez egindako lanei, eta pertsona erreal bat pertsonaia bilakatu behar genuen... Nola irudikatu? Guk gure Altzoko Handia irudikatu dugu. Erraldoia da, baina keinu eta postu- retan aldiz, oso txikia da, haurren txikitasuna nabarmentzen du, baina bihurria da eta ez ditu beti arauak errespetatzen», azaldu zuten ilustratzaileek.

Idazlearen eta ilustratzaileen arteko elkarlana «sarria eta sakona» izan dela baieztatu zuten hirurek, eta bildumako lehen bi ipuinen ostean ale berri- rik etorriko den edo ez airean utzi zuten. «Istoriok badi- tugu eta jarraitzen dugu lanean», esan zuten.

BILDUMA

Erein argitaletxeak argitaratu du bilduma eta oraingoz bi ale ditu: «Altzoko Handia eta Kutixiren gezurrak» eta «Altzoko Handia eta Kutixiren pianoa».



Koldo Izagirre, albo banatan Irrimarrako ilustratzaileak dituela.

Gorka RUBIO | FOKU